

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Landa Garapena Nekazaritza Politika Bateratuari dagozkion ordainketa zuzenen aurrerakinak abonatzen hasiko da asteartean, urriak 16

Gutzizko zenbatekoa 40.097.942 eurokoa da eta 10.375 nekazariren artean banatuko da

Astelehena, 2018.eko urriak 8

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak Nekazaritza Politika Bateratuari dagokion [lehen aurrerakin](#)aren ordainketa egingo du asteartean, urriak 16, Europako araudiak baimendutako lehendabiziko egunean. Funtzen eskaera heldu den ostegunean egingen da, hilak 11. Lehenengo aurrerakin honen guztizko zenbatekoa 40.097.942 eurokoa da eta Nafarroako nekazaritzako 10.375 profesionalen artean ordainduko da.

Honela, Nafarroa, ordainketa egin duten lehenengo autonomia-erkidegoetako bat izan da, sektoreari 2018ko kanpainaren hasierako lanak aurrera ateratzen lagunduko dion likidezia emateko asmoz.

Aurrerakina laguntza zuzenei dagokie eta honela banatuko da: 25.556.218 €, % 64, oinarritzko ordainketarako; 13.171.150 € klimaren nahiz ingurumenaren mesedeko nekazaritza jardunbideetarako (ordainketa berdea); 628.921 € nekazari eta abeltzain txikien erregimenari atxikitako 1.904 espedientetarako; 506.624 € 239 profesional gazterendako, eta 235.028 € arroza, oskola duten fruituak, kalitateko lekaleak nahiz azukre-erremolatxa laboratzeko laguntzetarako.

Araudiaren arabera, laguntza zuzenen aurrerakina % 50ekoa ere izan daiteke, salbu eta, aparteko arrazoiak tarteko eta Estatu kideak aldeztatik eskatuta, Europar Batasunak portzentaje handiagoa ordaintzea baimentzen duenean, iaz uholdeekin gertatu zen bezalaxe.

Nekazaritza Zerbitzuak SMS nahiz posta elektronikoen bitartez bidaliko die jakinarazpena profesional onuradunei.

Aurrerakina egin ahal izateko, kontrol administratibo guztiak gainditzeaz gain, lurraren gaineko kontrolak ere burutu behar izan dira. 2017an ezarritako baldintza berri hau betetzeko, Nekazaritza Zerbitzuak eta Erakunde Ordaintzailearen Zerbitzuak ahalegin berezia egin dute tramite horiek epearen barruan buka zitezen, gestioak ahalik eta gehien bizkortu eta dirua sektoreari ahalik eta azkarren helarazteko asmoz.

Urriko bigarren hamabostaldi honetan eta azaroan zehar, aurrerakin gisako beste ordainketa batzuk egitea ere aurreikusi da, lehen ordainketa-aldi honetan sartu ez diren espedienteen nahiz azaleraren arabeko edo abeltzaintzarako gainerako laguntzen mesedetan. Horien guztien behin-

behineko zenbatekoak bildu bezain laster, FEGA arduratuko da ezagutzera emateaz.

Abenduan, 2018ko kanpainako laguntzen saldoei dagozkien ordainketak egingen dira. Kontuan izan behar da saldoen ordainketa hauetan diziplina finantzarioa aplikatuko dela, hots, % 1,42ko murrizketa 2.000 eurotik gorako zenbatekoetan.